

Bermeoko Udala

Guztien jakinean jarten da, Bermeoko bandera eta bere erabileraren Udal Ordenantzea onartu dala hasiera baten, 2003ko urriaren 2ko Osoko Bilkuran eta, 30 eguneko epean jendaurrean jarri eta gero, onartu dala behin betiko honela:

BERMEOKO BANDERA ETA BERA ERABILTZEKO ARAUTEGIA

1. *Helburua*: Araudi honen helburua Bermeoko Banderea zehaztu eta bere erabilera erregulatzea da.

2. *Zehazketa*:

- a) Bermeoko Banderea lauki zuzena izango da; 1:2 proportzioskoa, hau da, jalgiguneko unitate bi edukiko dauz lekaguneko unitate bakoitzagaitik.
- b) Bertikalean erdibitua izango da, mastaren aldeko erdia gorria (Pantone 186C) izanik, eta eraginaren aldekoa zuria.

3. *Bermeoko banderearen erabilera*:

- a) Bermeoko Banderea izatuko da, bakarrik edo beste baten ondoan, bai Udaletxean zein Udalaren eta Udal erakundeen jabegodun eraikinetan, baita dagokion erabakietan agintzen diran lekuetan be.
- b) Bermeoko Banderea, maila goreneko beste baten ondoan agertzen dan kasuetan, honen ezker aldean (ikuslearen eskuinaldean) izatuko da. Eraketa berbera hau gordeko da masta zutun edo gurutzatuetan.
- c) Udalak aginduriko dolu egunetan, Bermeoko Banderea, baita Udaletxean eta udalaren edozein eraikinen izatuta dagozen beste guztiak be, masta erdira izatuko da. Modu horretara jarri ezin dan lekuetan, triza lotzen dan lekuan iminiko jako krespoi baltza.
- d) Bermeoko Banderea Bermeotar guztiek ahal eta behar izango dabe erabili, honeen itxuratzearen ikur legez, baina ezingo jako inoiz enpresa, alderdi politiko, sindikato, alkarte edo bestelako erakundeen hizki, marka edo logotiporik ganean erantsi.

Bermeon, 2004ko apirilaren 28an.—Alkatea, Juan Karlos Goienetxea Beitia